

4. Diru iturriak

Diru sarrera motak

Proiektu honek bi diru sarrera mota nagusi ditu:

- **Ordainketa bakarreko diru sarrerak:** bezeroak gailua erosteagatik egiten duen hasierako ordainketari dagokio diru sarrera mota hori. Kasu horretan, ordainketa bakarra sentsoreagatik eta erlojuagatik izango litzateke. Diru sarrera mota hori oso ohikoa da produktu teknologikoetan, batez ere kostu nahiko handia izan arren epe luzera erabiltzen diren produktuetan. Gailu horren prezioak irisgarria izan behar du xede publikoarentzat, baina ekoizpen eta banaketa kostuak eta espero den irabazi marjina ere estali behar ditu.
- **Ordainketa errepikariak:** diru sarreren eredu hori bezeroek denboran zehar egiten dituzten ordainketa jarraituei dagokie, gehienetan harpidetzen bidez. Gure kasuan, ordainketa errepikariak honakoetatik erator daitezke:
 - **App-aren harpidetza eta analisi zerbitzua:** klinikek urteko tarifa bat ordainduko dute jarraipen datuak, denbora errealeko analisiak, estresari eta bruxismoari buruzko gomendio pertsonalizatuak eta eboluzioari buruzko txosten zehatzak jasotzeko. Zerbitzu mota hori oso ohikoa da konektatutako osasun gailuetan; izan ere, diru sarreren fluxu etengabea ematen du, eta epe luzeko balioa lortzeko aukera ematen die bezeroei.
 - **Laguntza teknikoa eta eguneratzeak:** gailuak softwarearen edo laguntza teknikoaren aldizkako eguneratzeak behar baditu, zerbitzu horietarako harpidetza eskaini daiteke.

Diru sarrerak sortzeko moduak

- **Aktiboen salmenta:** sentsoreak bezeroak hasieran erosten duen gailu fisiko bat denez diru iturri giltzarria izango da proiektu honetarako. Sentsorearen eta erlojuaren prezioak kontuan hartu behar ditu banatzaileentzako garapen, ekoizpen, marketing eta banaketa kostuak eta komisioak. Merkatuan sartzea lortzen den heinean, gailuaren salmentek diru sarreren fluxu esanguratsua sor ditzake.
- **Lizentziak:** Profesionalek urteko tarifa finko bat ordainduko dute sistema erabiltzeko, eta aukera emango liekete diagnostiko zehatzagoak egiteko eta pazienteen aho hortzetako osasunaren jarraipen zehatza egiteko.

Prezioak

Sentsorearen eta erlojuaren prezioa finkoa izango da, eta fabrikazio kostuen eta gailuaren ezaugarrien arabera zehaztuko da. Prezio horrek lehiakorra izan behar du. Hori dela eta, 170€-ko balioa izan du sentsoreak eta erlojuak, berriz, 50€-koa ikerketa, marketina eta saldu osteko laguntza



finantzatzea ahalbidetuko duen irabazi marjina bermatzeko. Prezio baxuegiak produktuaren balio pertzepzioa eta errentagarritasuna murriztu ditzake.

Bestalde, prezio dinamikoak aplikatuko zaizkie app bidezko jarraipen zerbitzurako urteko harpidetzei. Prezioak sarbide mailaren eta klinikak erabiltzen dituzten pazienteen edo gailuen kopuruaren arabera aldatzen dira. Urteko harpidetzek 50€ eta 200€ arteko prezioak izango dituzte.

Diru sarreraren partaidetzaren ehunekoa

Jarraian, proiektuaren diru sarrerak nola banatuko diren azaltzen duen estimatua:

- **Aktiboen salmenta (sentsorea eta erlojua):** diru sarrera guztien %70 inguru izango da.
- **Harpidetza (app):** harpidetza ereduak diru sarreraren %20 sortuko du. Nahiz eta harpidetza errepikakorra izan, hasieran, diru sarreraren zati txikiagoa izango da.
- **Osasungintzako profesionalentzako lizentziak:** %10 inguru. Eredu honek potentzial handia duen arren, kliniketan inplementatzeak eta hartzeak denbora pixka bat har dezake.

Hasierako inbertsioaren kalkulua eta diru sarrerak lortzeko bideak

Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroaren (CDTI) **I+D proiektuak** finantzatzeko deialdian parte hartzeko aukera identifikatu dugu. Laguntza-lerro hau produktu teknologiko disruptiboen eta soluzio aurreratuen sorkuntza sustatzeko diseinatuta dago, gailu medikoetako gure berrikuntza-helburuekin ezin hobeto lerrokatuta.

Gure proiektuak CDTI-ren I+D programak ezarritako baldintzak betetzen ditu, eta, horri esker, aurrekontu osoaren % 70-erainoko finantziazioa lor dezakegu. Izan ere, sentsorea, app-a, erabiltzaile-interfazeak eta datuak analizatzeko plataforma garatzeko proiektatutako inbertsioak 175.000 euroko gutxieneko aurrekontu hautagarria gaingiditzen du.

Finantza-laguntza hori funtsezkoa izango da hardwarearen diseinuaren, firmwarearen garapenaren, softwarearen integrazioaren, marketing kostuak, proba klinikoen eta optimizazio teknologikoaren kostuak estaltzeko, eta proiektuaren jasangarritasuna eta hortz-osasunaren merkatuan irtenbide iraultzaile bat sartzeko dugun gaitasuna bermatuko ditu.